



Ebazpena, 2017ko maiatzaren 15ekoa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen horren bidez 2016-2017 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdiaren 6.4) atala esleitzen da behin-behinean.

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2016ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez, 2016-2017 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen (2016ko abenduaren 29ko EHAA).

Hezkuntza Saileko sailburuordearen 2017ko martxoaren 28ko Ebazpenaren bidez ebatzi zen behin betikoz aipatutako deialdia, 6.2) atalari dagokiona.

Aipatutako deialdiaren 6.4) atalean ezarrita dagoenaren arabera, deialdiaren 6.2) atalari jarraituta, eskabideak aurkezteko epea baino beranduago matrikulatutako ikasleek badute laguntza eskatzeko eskubidea.

Aipatutako deialdia arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Behin-behinean esleitzea deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak.

Bigarrena: Interesdunak jakinaren gainean egon daitezen, deialdiaren behin-behineko esleipenaren zerrenden iragarpena egitea eta diru-laguntza kopurua eta hala dagokionean ukatzeko arrazoiak azaltzea "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan.

Hirugarrena: Behin-behineko esleipen honen kontra alegazioak egin edo agiriak aurkez ditzake eskatzaileak bere interesen defentsarako. Alegaziook 15 egun balioduneko epean egin beharko dira, iragarki hau "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan argitaratzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Laugarrena: Behin-behineko esleipenaren kontrako alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ebazpen hau behin betiko bihurtuko da, eta "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan argitaratuko da, Deialdiaren 8.3) atalean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko maiatzaren 15ean.



HEZKUNTZA SAILA

Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN